

# Ba-du gizonak gosea kentzeko eskubidea

FAO dute Nazio Elkartzak Nekazaritza eta Elikadura munduan antolatzeko Erakuntza. Oni dagokio, gizadiaren Jan-maila ta bizibide-maila jasotzeko eginkizuna. Ortarako luraren emaitzak, fruta, zuhaitz eta arrantza-sailak ugaritzen saiatzen da. Nekaziaren bizi-maila ere jaso nai luke; belar txarrak eta lurreko fruituen gaitzak sendatzen eta gizadien premi gorriaren arkitzen diranei laguntzen elertzen da.

Gizadiaren erdia baiño geiago da naikoa janari gabe bizi dana. Ala ta gutzit ere, 1962'garren urtean bakarrik 150.000 milioi dolar inguru gastatu ziran armetan. Ogeigarren gizaldi onetan, jaitzen diran iru aurretatik batek ezta bear aña jateko aukerarik izango. Au jakinda gero, galdetzeko bada, gizadia zertan ari dan bere giza-aurrerapena itozten.

Ta gaitz au gutxitu bearean, geitzen ari da; janariak ezpaitira bizi berrien eñean geitzen. Janariak urritzen eta gizonak ugaritogutzen. Ori da gure aurrean gertatzen ari dana. Ta ori, gaitz ori sendatzeko bideak gure eskuan ditugula. Au da beltza. Guk ditugun esku-erakoak bear bezela erabilliko ba-genitu, gosearen atzaparretatik laster aterako genduke gizadia.

Au onela dalarik, konturatzan al-gera nolako arriskuan bizi geran, gure erruz gizadia goseak galtzen lagatzen ba-degu? Ta zoritxar ori ezpadegu alegiñean aldentzen, nolatan bizi bear degu, erantzupide ikaragarri orren azplan?

Negaragarria da, izan ere, gizonak iritxi degun jakite sakon eta ugarria, alako premi gorriari bizi diranen alde erabiltzeko Irautea. Beste bearkizunaren artean, janari-bearra da aurrenetakoa munduan. Erria bear aña jateke bizi ba-da, erri orren aurrerapena lotua gelditzen da beste sail guzietan.

Nazio bakoitzaren alegiñak agortu arte erabili bear dira, bizimaila ori jasotzeko; baiña asieran batez ere, nazio atzeratuak beste nazio aurreratuaren laguntza bearko dute, lenengo pausuak emateko. Atzerapenaren iturria, gizarte-saillekota ta diru-erazena da, jakifiazera baiño geiago.

Orregatik aurrena dirua bear dute erri beartsu oiek eta gero jakitea ta irakaskuntza zabaltzea ta erreztea. Gaitza zabala da ta sendabidea iristeko, nazioak elkarri eskua luzatu bearko diote.

Au da izan ere, gizonaren aurreneko eskubidea, gosearen mendetik bere burua atara al-izatea. Egin bezate, ba, alegiña erri bakoitzak eta guziak elkarte estuan batuta, Gobernu ta mendekoak. Ta begira dezagun nolako gastu ikaragarria egiten dan arma berriak sortzeko ta ugaltzeko. Ontan gastatzen danaren zati bat erriak eta auen gosea arintzeko arbu to-ba-lute, zenbat ez litzake iritxioko gosea arintze orretan?

Gañera, elkarki gosea kentzen laguntze onek, errien arteko pakegiroa ta anaitasuna indartzen lagunduko liguke. Onela piztuko genduke gizonen biotzetan izkutu arkitzen dan aberastasunik onena: elkarren maitasuna ta begirapena.

# GEURE UTSAK

Robert Kennedy tiroz bota zuten goizea zan. Gradu-ko esturianteri norteamerikano bat agertu zan Diputazio-ko liburategian. Eguneroko etortzen zan. Texas-koa da. Euskalerriari buruz garrantziko lana ari da preparamen. Gure artean ibilli da iru bat illabetian.

Momentu artantxe teleponoz deitu zidaten Kennedy tiroz lurerratu eta il zorion zegoala. Baita nik Texas-ko esturianteari berri samin au pakinerazi. Burlaka ari ote nintzaion erantzun ziran oso serio.

Ezetz nik. Egi-egitan esaten niola. Berak berriz oso goibel. —¿Nere kontura parre egin nai al-dezu? —¿Kenedista al-zera? — galde egin nion orduan.

—Ba. —Baita ni ere. Baiño zoritxarrez esaten dizudan auxe, egi-eglyia da.

Malkoz begiak bete zitzaizkion. Alkarri eskua eman eta estutu, eta berialaxe irten egin zuan. Etzan geiago etorri iru egunian.

Bera joanda berialaxe, beste norteamerikano bat, euskal liburu gaietan oso jakintsua etorri zan. Urte asko alkar ikustean ez genula eta besarkatu egin giñan. Onek ere etzekien Kennedy-ri gertatua.

Uorteamerikako euskaldunak obeto ezin ezagutzen ditu nere lagun onek. Reno-ko Unibersidaderako euskal liburuak emateko asmatan zebillan. Gauza asko aztertu genituen.

Makiñabat kontu esan genduan. Alkarrizketa artan atera zan, neretzat izan zitekean berririk arrigarriena.

Norteamerikako Estadurik euskaldunenean, bertako euskaldunak, gobernadore euskalduna buru zutela, Kennedy-ren oso kontrarioak zirala.

Nere lagunak esan zuan gobernadore onen apellidua euskalduna. Txundituta gelditu nintzan.

—¿Eta zergaitik da ori? — galdegin nion.

—Ba, Kennedy jokoreen kontrarioa dalako. Orduan nik, zearo berotuta, baita nere erriaren kontra, nazkak, aundiya bota ere.

Nere erri euskaldunak orrela bear bazuan, goitiki beera eginen niola — esan nuan beste itz batekin.

Nere lagun euskal-amerikanoa etzan asarretu. Etzian inportantziarik eman. Bera ere kenedista zan, baiñu guzak orrela zirala, eta ia zergaitik orren asarre jarzeten nintzan. Apal-apal esan ziran.

Bañan nere asarrea ezta baretu, geigotugu baizik. Kennedy il da, baiño jokoreen kontrarioa zalako bere aurka zeuden Norteamerikako euskaldunak ezin aaztu zaizkit.

Egi-egitan ari naiz. Orain arte gure erriaren goralmak besterik ez ditugu entzuten. Saint-Cyran, nere liburuan, gure erriaren kritika egiten nualako, makiñabat txepelkeri entzun eta letu nituen.

Geure uts guzi-guziaren kritika benetako ¿noiz asi-ko ote gera egiten?

*Jose de Artea*

# Iparra ala egoa?

Berandu ala goiz, dana irixten da. Joan dan urtean, nere antziñako gogo bat bete nuan. Gaztetandikan, Europa'ko Ipar lurraldeak ezagutzeko xedea neukan, okasiya mai-suu zarrak askotan esaten zuan, guk euskaldunok, Iparraldearantz begira tu bear genukela, ez Egoaldera. Berekin nagola zer esanik eztago.

Ala bada, itxas-ibillaldi au egiteko, alaitasunez nengoa. Ba nekien, makiña bat aldiz, okasiya ulatzen danean ameskeri geyenak uts egiten dutela. Bañan nere amets au, ez. Eskandinabi'ko erriak ezagutu

ondoren, len baño sinpatia aundi-go diotet.

Igazko goiz eguzkiutsu artan, iru adixkide bildu giñan Santurtze'ko kai-aldean, itxasoratzeko orduan. Nere lagunen bat, Tolosa'ko euskal idazle ospetsua zan: Antonio Laba-yen. Egun oyetan, Teatro'ko Gipuzkoa-Saria irabazle berria zan. Beste atleta zar bat, Gipuzkou'ko aspaldiko kanpeoi bat, 200 m. lasterketan: Rikardo Arza. Eta gañera, ontzian sartu eta bereala, beste aspaldiko adixkide bat topo egin nuan: Aurelio Artetxe. Bikaitar jator au, Caracas'en ezagutu nuan, iya ogeitamur urte lenago...

Zorionez, iru lagun oyeak (eta ontzian ezagutu genuan beste azkoitiar bat) oso umore oneko jendea zan. Oyeikin, bai izketan, bai pa-xiuan da bai musian ere, parrezka derrior egon bear.

Barkua txiki xamarra zala esan bear det. Bañan apain, polita ta erosoa ere bai. Gañera oso giro ederra izan genuan trabesian da alako itxasoko baretasuna gutxitan ikusi-ko dala uste det. Olaxen, txikia izan arren, barkuak etzuan geyegi dantzatu.

Ipar-lurraldetan, beste inñun baño obeto ikusten da jendearen errespetu eta ongintza. Kaleetan, automobil guztiak, "rayas amarillas" aurrean (an, txurrik izaten dira) berez gelditzen dira. Bañan guzitiak guziak eta "biziya barkatu" gaberikan. Eta bere aldiñan, oñezko jendea askar mugitzen da, kale-ertzetik bestera pasatzeko. Ez emen bezela...

Eta, zer esango degu garbitasun-ri buruz? (Eta sinixtekalu Ein da papertxo bat sikiera kalean ikusten). "Ango jendeak ez al dute erretzen?", norbaitek galdutako dit. Erretzen edo ez pa dute erretzen. ezakit nik. Bañan gauza bat da daki: inork ezutela zigarro-mutur bat arkituko lurrean.

Ziudade eder oyetan, jendea lasai-lasai sartzen da paseo eta ezkurdiko zelayetan. Eta an, belar gañan, etzanda jartzen dira aize zabalian, eguzkia artzeka. Bañan etxera juteko ordua allatzen danean, dana garbi-garbi eta len baño ote ta txukunago lagatzen dute tokia. Bakoitza, guzien gauzetan, bere etxeko balitz bezela arduratzen da.

Oslo, Copenhague, Helsinki, Estokolmo eta Hamburgo ziran gure itxasbidean bixitatu genituan uriak. Onenean, beste urrango idazlan batean nere ziudade oyen iritziak azalduko dira. Gaur ezin. Idazle kaskarrak eztagiku artikuloak neurtzen da tokia bukatu egin zait.

Gauza bat bakarrik esan nai nuke, emaitzeko: gure antziñekoak, Egoaldeko jendekin baño, wikingo, normando eta bretoyekin zer-ikus geyago izan zutela. Erri oyen itxas-tar eta urrantzalekin, zein-geyagoka maiz ibilli ziran itxasoan, makalla eta baliñen bila. Aztertu dezagun, ba. Akaso, gure benetako xedea. Iparra izango da oraindikan...

Miguel PELAY OROZKO'k

## Astetik astera

# NEGU - MARRUBIAK

ANSA'K

Antziñako errege persa batek marrubiak jan nai zituela esan omen zion bere ministro nagusiari, negu bizian zeudelarik.

Zorionez, iru lagun oyeak (eta ontzian ezagutu genuan beste azkoitiar bat) oso umore oneko jendea zan. Oyeikin, bai izketan, bai pa-xiuan da bai musian ere, parrezka derrior egon bear.

Barkua txiki xamarra zala esan bear det. Bañan apain, polita ta erosoa ere bai. Gañera oso giro ederra izan genuan trabesian da alako itxasoko baretasuna gutxitan ikusi-ko dala uste det. Olaxen, txikia izan arren, barkuak etzuan geyegi dantzatu.

Ipar-lurraldetan, beste inñun baño obeto ikusten da jendearen errespetu eta ongintza. Kaleetan, automobil guztiak, "rayas amarillas" aurrean (an, txurrik izaten dira) berez gelditzen dira. Bañan guzitiak guziak eta "biziya barkatu" gaberikan. Eta bere aldiñan, oñezko jendea askar mugitzen da, kale-ertzetik bestera pasatzeko. Ez emen bezela...

Eta, zer esango degu garbitasun-ri buruz? (Eta sinixtekalu Ein da papertxo bat sikiera kalean ikusten). "Ango jendeak ez al dute erretzen?", norbaitek galdutako dit. Erretzen edo ez pa dute erretzen. ezakit nik. Bañan gauza bat da daki: inork ezutela zigarro-mutur bat arkituko lurrean.

Ziudade eder oyetan, jendea lasai-lasai sartzen da paseo eta ezkurdiko zelayetan. Eta an, belar gañan, etzanda jartzen dira aize zabalian, eguzkia artzeka. Bañan etxera juteko ordua allatzen danean, dana garbi-garbi eta len baño ote ta txukunago lagatzen dute tokia. Bakoitza, guzien gauzetan, bere etxeko balitz bezela arduratzen da.

Oslo, Copenhague, Helsinki, Estokolmo eta Hamburgo ziran gure itxasbidean bixitatu genituan uriak. Onenean, beste urrango idazlan batean nere ziudade oyen iritziak azalduko dira. Gaur ezin. Idazle kaskarrak eztagiku artikuloak neurtzen da tokia bukatu egin zait.

Gauza bat bakarrik esan nai nuke, emaitzeko: gure antziñekoak, Egoaldeko jendekin baño, wikingo, normando eta bretoyekin zer-ikus geyago izan zutela. Erri oyen itxas-tar eta urrantzalekin, zein-geyagoka maiz ibilli ziran itxasoan, makalla eta baliñen bila. Aztertu dezagun, ba. Akaso, gure benetako xedea. Iparra izango da oraindikan...

Ziudade eder oyetan, jendea lasai-lasai sartzen da paseo eta ezkurdiko zelayetan. Eta an, belar gañan, etzanda jartzen dira aize zabalian, eguzkia artzeka. Bañan etxera juteko ordua allatzen danean, dana garbi-garbi eta len baño ote ta txukunago lagatzen dute tokia. Bakoitza, guzien gauzetan, bere etxeko balitz bezela arduratzen da.

Oslo, Copenhague, Helsinki, Estokolmo eta Hamburgo ziran gure itxasbidean bixitatu genituan uriak. Onenean, beste urrango idazlan batean nere ziudade oyen iritziak azalduko dira. Gaur ezin. Idazle kaskarrak eztagiku artikuloak neurtzen da tokia bukatu egin zait.

Gauza bat bakarrik esan nai nuke, emaitzeko: gure antziñekoak, Egoaldeko jendekin baño, wikingo, normando eta bretoyekin zer-ikus geyago izan zutela. Erri oyen itxas-tar eta urrantzalekin, zein-geyagoka maiz ibilli ziran itxasoan, makalla eta baliñen bila. Aztertu dezagun, ba. Akaso, gure benetako xedea. Iparra izango da oraindikan...

Ziudade eder oyetan, jendea lasai-lasai sartzen da paseo eta ezkurdiko zelayetan. Eta an, belar gañan, etzanda jartzen dira aize zabalian, eguzkia artzeka. Bañan etxera juteko ordua allatzen danean, dana garbi-garbi eta len baño ote ta txukunago lagatzen dute tokia. Bakoitza, guzien gauzetan, bere etxeko balitz bezela arduratzen da.

Oslo, Copenhague, Helsinki, Estokolmo eta Hamburgo ziran gure itxasbidean bixitatu genituan uriak. Onenean, beste urrango idazlan batean nere ziudade oyen iritziak azalduko dira. Gaur ezin. Idazle kaskarrak eztagiku artikuloak neurtzen da tokia bukatu egin zait.

Gauza bat bakarrik esan nai nuke, emaitzeko: gure antziñekoak, Egoaldeko jendekin baño, wikingo, normando eta bretoyekin zer-ikus geyago izan zutela. Erri oyen itxas-tar eta urrantzalekin, zein-geyagoka maiz ibilli ziran itxasoan, makalla eta baliñen bila. Aztertu dezagun, ba. Akaso, gure benetako xedea. Iparra izango da oraindikan...

# Eskarrik asko, estitxu

Estitxu'ren disko berria entzun dut, eta txaloak meze-ri dituz beskoiztarrak: oso abost leungun atsegiña, orkestra bizkorra laguntzaile: lau aide entzungarri, hitz batez.

Euskal Kanta ederki abiatu da, eta ba dugu euskaldunok hortan zer pozturik.

Orain dala hamar bat urte Nemesio Etxaniz apetzak euskal kantaren geldikeri-giroa urratu nahi zunean, ez ziran danak bere alde jarri. Mixel Labéguerie'k berak kritika gogorak jasan behar izan zituen ondoko urteetan, gitarra batez lagunduta, gaurko kutsuko kanta berriak asmatzen hasi zalako... Nunbait, orain dala ehun urte Iparagirre'k izan zuen eskubidea, gaurko euskaldunok ez dugu...

Beharrik garai triste haiek paseak dira. Betirako, agian!

Azkeneko urte hauetan ugaldut egin dira gure «artista euskaldun» berriak. Estibalitz Robles zerrenda luze baten buruan ezar ditezke: Mikel Laboa, Lekuona, Mari Lurdes I., Lertxundi, eta abar eta abar. Euskal Kanta bizi bizirik dago: inoiz baiño biziago, dirudienez. Eta gazteriak piztu du. Euskal belaur berriak merezimendu handiak dituz arlo hontan ere; eta agirian txalotzea merezi du: nagiturik eta gogorturik zegoen euskal ekin-tza sail hau, zerok, euskaltzale gasteok alegia, zuzper-tu duzute. Bertako guzien izenean: antiz esker.

Ez ditugu gure eginkizunak beti xuxen ikusi. Gorago esan dudan bezela, euskalduntasuna eta aspaldikeria gauza bakar bat iruditzen zitzaizkion, zoritxarrez, gure arteko batzuei: euskalduna izateko, urte askotan barre-na entzun danez, atzera begiratu behar zan: abarkak jantzi, folkloreaki ekin, alboka entzun, gure «ohitura

zaharrei» eutsi, eta... dantza lotua gaitzetsi! Larramen-di'ren mendeen bezelaxe!

Jokabide hau, halere, ez da zentzugabekeria hutsa izan, eta goitiki behera kondentatzea ez litzake bidezko izango: azalpen argitsuak eman ditezke, eta ez danak lotsagarriak: Bretainia'n, Quebec'en, Flande'tan, sortu dira horrelako joera atzerakojak.

Gure artean, lehen konturazte-maila hori gainditu dago; eta Euskal Herria etorkizunean ikusten du gazteriak.

Arrisku bat ba dago, halere, eta ez oraingoz arras bartzetua: mutur batetik bestera joatekoa.

Lehenik, Iragana ikusten zuten batzuek, eta ez berterik; gaur Iraganekin ebaki egin nahi dute beste batzuek, herri guzietik sustraiak Iraganean ez balituzte bezela.

Euskal kantatzaile berriak erakusten digute bidea, bi muturretatik urrunduz: funtsez unibertsalak izan, eta keraz euskaldunak. Herri bat ez da esentzia bat, forma bat baizik.

Euskalduna izateko, hortaz, gaurko munduaren leku-ko izan behar da, eta esuskeraz; eta ez, alderantziz, XVI-gn. mendeko sasi-lekuo bat, eta erderaz. Sartu egin behar dugu mendeko kulturari, eta ez irten; bai-ñan euskaldun gisa sartu, suetzitarrak suzietara eta italiarrak italiaraz sartzen diran bezela. Ba zan garaia hau ulertzeko!

Ulertarazi nahi hortan oso egokitzat daukat, beste-ren artean, Estitxu'ren diskoa.

Zorionak, beraz, eta ekin! Eta ia urrangoan lau rock esuskeraz entzuteko atsegiña ematen digun.

LARRESORO

## Zeruko Argia

Zuzendaria:

ANTONIO ITURRIA ASTIAZARAN

Naparroko-Kantauriko ta Ara-goiko Kaputxinoak argitaratua (Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n:

Oquendo, 22: Telf. 26666


ARPIDE-SARIA:

Urtekoa ..... 190 Pta. Atzerrian ..... 265 »

Aldez artu nai bada, galdetu.

# SIGMA

Elgoibar



Kontuatuak gaudu aspaldi Ezkon-berriak bear dutena Erriko ta erbesterako, Bizimoduan asteko, Oso itxua bear du batek, Etxe-bizitza egokia ta Au ondo ez ikusteko. «Sigma» makina josteko.